

tegi, arintasun, astuntasun; hazberapenti, añenti, anenka, aldamenka, arlankaitz, afankura, astalka t. a. Ager da, ba, itz askotan aldakuntzarik ez dagoala : baña beste askotan aldakuntza ori egiten dala be lentxuago ikusi dogu.

Orain ba : aitaturiko aldakuntza ori, iñoz egitekotan, gertaldi bi oneitan gitxienez be egin bea' dala dirudi : lenen, abots bardiñeko ta iku'pen berezi bikoitzak era- gozteko, bea'ezkoa danean; biga'fen, abots gogo'f eta ba'rdiñak alka'fen ja'fai ba'leto'fz, itz osoa bigun eta go- zoago izan dedin, izpiakera-arauz aldatu leikena, kezka barik aldatu bea' dala deritxat.

Estalgi, iraulgi ta odolgi'k abots ba'rdiñik ez dauke alka'fen ja'fai : euskalki'k bere *kalki* ori o'f darakus : izpia- kera-arauz biga'fen k ori g izan daiteke : aldakuntza au egiteko, beste iru itz o'feitau baño zegati o'bea dago : be- raz, euskalki baño euskalgi o'beagotzat daukat.

§ IX

ERDERATIKO-ITZAK, ITZ-BARĪJAK ETA AINTXIÑA-ITZAK

(GARIĪ. 23^o BATZARAN ALTUBE YAUNAK EGINDAKO IKERĪPENA¹)

ASTE-ATALA

¿ Itz-talde o'feetatik, zeintzuk ontzat artu bea' dira eta zeintzuk baztatu ?

.Euskaltzaindiarentzat erabagirik betetze-e'fezema u'fengo bijoetatik bat litzate :

I. Bota sokondo batera erderatiko itz oro eta ordez-

1. Ikus EUSKERA onen I^o Atala, 78' ga'fen o'fian.

tzeko bilau aintxiña-itzetan, edo asmau bafi-bafijak. Lan polita azkenengo au; euskal-ikasti-lanetatik atsegingafiena. Baña, erabagi au, atsegingafia izan afen, Euskaltzaindiak ezin artu leike; mundu guztiko izkuntzeetan zer jaso oi-dan, munduko gauzak zelan diran, eta euskaldunok mundutafak gareana berau be, aztuta edo ez jakin da baño ezin artu lei ofelako erabagirik-eta.

II. Artu, euskerea, bizi dan legez, eta emon ontzat euskaldun geyenak gaur aotan darabiltzan erdera-mordoiloizko itz oro. Erabagi au be artu ezin leikena, eztago zertan esan be. Gaurko euskerea, sori-txañez, erdal-itz mordoiloiz azufetaraño josita bizi da-ta.

Egal edo ertz bi ofeetan eztago bada erabagipiderik; au, munduko gauza geyenetan oi-dan legez, egal bienbitartean dago; eta auxe bilatzen gaitza, erijak berez ondo egin eztaroanean.

Baña gaitza dalata bertan bera utzi be ezin giñeijo, eta goazen aufera, mustufez-aufera jausteko bildufez baño ezpada be.

Igez argitaldu neban « De Sintaxis euskérica » deritxon liburutxuaren 77-gn ofi-aldean, ona emen zer niñoon, gai beroneri buruz :

« En estos últimos tiempos en que se ha acrecentado bastante la afición a la escritura euskérica, se observa, por otra parte, que la mayoría de los euskerágrafos entiende que la corrección de un escrito debe juzgarse por el menor número de voces de origen erdérico que se empleen en él. El error no puede ser más grande.

« El empleo de voces importadas de lenguas extrañas es un recurso absolutamente legítimo natural y útil¹ para

1. Las palabras de origen erdérico pueden agruparse en tres clases :

I. Las euskerizadas, o sea las que han sufrido algún cambio mor-

la vida de ellas ; así lo entienden todos los lingüistas aun de los países que como el alemán y el inglés tienen una numerosa población y poseen idiomas muy ricos en cuanto a su adaptabilidad y capacidad para la formación de voces nuevas sin recursos extraños.

« En cambio la gramática de una lengua es el alma de ella ; y en ningún idioma de los que se precian de cultos es permitido faltar a la más insignificante de sus reglas. El español p. e. admite de grado el empleo de innumerables voces prestadas por el francés, el inglés, el euskera, etc., pero nunca transigirá con euskerismos como p. e. « No quiere y... », « Grande grande que es dice » etc., ni con galicismo como : « el niño ha visto la madre » etc.

« En cambio en euskera soportamos los erderismos sintácticos más garrafales con tal que se intercalen de vez en cuando algunos neologismos de peor o mejor gusto. Con lo cual, además de destruir la lengua en su aspecto más íntimo cometemos el mal de hacerla doblemente incomprensible para los que no saben más que el euskera popular, que entiende poco de neologismos y se pierde con las enrevesadas oraciones y frases construidas al estilo español. »

Auxe giñoan aitaturiko liburutxu aretan.

fológico al ser introducidas en la lengua vasca ; v. g. : luma (pluma), landara (planta), urkatu (de aborcar), erloju, balijo, pixu, liburu, makiña, kanpai, gatzelu, etc.

II. Las que, a pesar de no haber experimentado tales cambios, su uso se ha generalizado mucho en el habla popular ; v. g. : pelota, toñe, kotxe, pañila, lima, etc., etc.

III. Las de uso universal, como : politik (a), akademi (a), musik (a), orkest (a), zepelin, hotel (u otel), kafe (o kape), etc., etc.

A nuestro juicio, no debemos tener reparo los vascos en incorporar a nuestro iztegi todas las palabras correspondientes a estos grupos. Otras lenguas menos necesitadas de ello que la nuestra no dejan de aprovechar esos recursos que tanto enriquecen sus respectivos léxicos.

Euskaltzaindi onek, erderatiko itzak noiz onetsi ta noiz ez ebatsiteko, oiñ-arau (bases) batzuk nai leukezala-ta, arasotxu au agindu euskunean, goragoko erdel-itzok irakufiz, amaituta genduala uste izan gendun berau.

Baña geroago, euskal-irakurkizun batzuk azertu, euskaltzain-lagun batzuen eretxiak be entsun eta irakufi ditugu, eta ara begiratu ona begiratu, geure ustezko oin-arauok zeaztxoago azaltzeko asmoa artu dogu.

Eta, onetarako, lantxoau, beronen buruan izentau ditugun iru atal ofeetan banandu bear dogula uste izan dogu : *Erderatiko itzak*, *Itz-bafijak* eta *Aintxiña-itzak*; ofa of iru atalok.

Lenengo, bakoitzari buruz esango dogu zerbait; eta amaitzeko, irurok eta beste itz oro batera artuta.

I. ATALA

ERDERATIKO ITZAK

Ona emen, geure ustez, euskal-iztegiratu bear ditugun erderatiko itzok : Euskal-erian, zabal-zabal (bardin ezpada zustrai bateko) antxiñatik eta ondo lufa-artuta bizi direan, eta euskaldun jatorrentzat esan-eréz diran oro, Berbarako : efazoi (edo afazoi), balijo, seguru (zigur edo ziur), olijo, dantza, zapo, bala, pelota (edo pilota), eliza, garaun (grano) eta abar.

Erderatiko itz ofeetatik batzuk euskal-iztegian sartzeko, beste batzuk baño ate zabaltxoagoa bear eukeela deritxogu. Ona emen, gure ustez, zeintzuk zabalen bear dabeen :

A) *Euskera antza artu dabenak.*

I. Erderatik euskeraltzean, zerbait euskal-ots-arauen bidez, (por medio de las leyes fonéticas vascas) edo ain

barik, aldatu diranak : *mailu*, *mailuka*, *jungura* (yunque), *poñu*, *zoru* (suela), *luma* (pluma), *landara* (planta), *urkatu*, *erloju*, *pixu* (peso), *eliza* eta abar.

II. Euskeraratzean erderatiko zentzun edo ikuña (significación) aldatu dabena : *erota* (rueda), *makiña* bat (mucho, multitud), *kalamatrika* (erderazko « gramática » tik dator eta recovecos, rodeos esan nai dau), *eretolika* (retahila), *zapo* (mal intencionado), *puntuon* etofi (venir hace un momento) eta abar.

III. Erderatikoai euskerazko beste itzen bat ezafita bizi diranak : *tabakoñi*, *eliz-gizon*, *zapo-buru*, *pipontzi*, *artaga-raun* eta abar. (Baliteke *argizeri* itzonen bigaeren zati ori (-zeri), erderazko « cera » izatea. Baita *itxulapiko*-ren *-itxu* ori be erderazko « ucha » ren senide izatea. « Ucha » tik « itxu » etortea ezta gaitz, baña onela ezteritxonari Gernika-aldeko « utse lapiko » ipiniko deusagu bitarte : Gernika-aldean, *ure*, *azuñe*, *utse*, esaten da *ura*, *azuña*, *utsa* esan beaeren, eta *jakiña*, *utsa-lapiko*'ren ordeztse-lapiko. *Utsa* ori ez ete-da ba erderazko *ucha*?)

IV. Erderatikoai euskal-izkiren (afijo) bat ezafitakoak : *Tripaki*, *elizako*, *zapokeri* (marrulleria), *geñate*, *elizkizun*, eta abar. Eta onelako itzok dituezan itz-zustrayak : *tripa*, *eliza*, *geña* eta abar.

B) Toki-izen eta abizenetan bizi diranak.

Euskal-eriko toki-izen eta abizenetan sustraya bota dabena erderatiko itzak : *toñe* (Toñea, Dofegarai, Toñealdai), *eleiza* (Elizalde, Elizondo, Eleizpuru, Elizgoiti, Eleizabeitia), *gaztelu* (Gaztelugaitz, Gaztelupe, Gaztelondo), *monesterio*, *geña*, *ereminta* (Efementeria), *erenta* (Erenteria) *telã* (Teleria) ta a.

C) *Ots-egokizkoak.*

Euskal-belafientzako, erderatiko itzoen otsa eta zentsuna edo ikuña, alkaferi egoki-egoki jatorkoezanak : *kanpai, ezpata, kañoi, pipa, eskopeta, trunboi* eta abar.

D) *Atzeri-gauzeenak.*

Erdel-itzak izentetan daben gauzea be atzeritara edo atzeritar-antzekoa danekoak : *peseta, txelin, gitarra, gobernadore, karabiñeru, gorda-zibil* eta abar.

E) *Mundu guztitarak.*

Mundu guzti edo geyeneko izkuntzaak eurentutako itzak : *politika, musika, orkesta, hotel* eta abar.

F) *Euskaldun lauen artekoak.*

Itzok, efi-lau edo apalaren ao ta belafietan safi-safi ibili-beafeko diranak : *lima, tomate, sardiña, tximiñi, makiña, zerra, eliza* ta abar. (Erderatiko itz batzuk euskal-iztegitratzeko zegaiti bat baño geiago dabe; *eliza* itzak ei ditu ikusi dogunez; *zapo* itzak iru edo lau; *lima*'k bi, eta abar. Itzen izatealde (aspecto) au be, iztegia eraltzeko gogoan euki bear dala dirudi.)

G) *Erderatiko izkidunak (Compuestos de afijos erdéricos)*

Euskeraldukeran gitxi-asko aldatu diran eta euskaldunen artean oso sartuak diran erderatiko izkia (afijo) daben itzak eta izkiok eurok be bai, lafegikeri barik : *urkamendi, ondamendi, irudimen, garaipen* eta abar.

Eredutzat (como ejemplo) atara ditugun atzizki (sufijo) oneek, latinezko *-mentum*-edo gaztelerazko *miento*-tik artuak dira antza; baña aldatu zamartuta dagoz eta euskal-belafietan, ain txarto be eztirala sartzen esan lei. *Buru-*

lansíño, asmasíño, gogorasiño, eta beste onako askok, lengook baño erdal-antz geyago dabela esan lei, erdel-atzizki ori aldatuxe dabe baña. Beste, ezer aldatu barik euskeraratu diran erdal-izkirik geyenak ezteritxogu ontzat emon leitekezanik.

Eta onetatixek jatorku orain esan ditugun arau-bayetztoi (ley afirmativa) ofeen argipide eta amaipiderako egoki-egoki datofen beste arau-ezetzko (ley negativa) bat be. Ona emen berau : Euskal-izlegian sartzeko aterik estuen-estuena bear daben erderatiko itzak, erdel-zustrayaz gamera erdal-izkiren bat geituta dabenak dira : *lima, pelota, sardiña* eta antzeko itzak, eztira euskal-belafientzako mingaí-mingaña be; baña, *limadoria, peloterua, sardiñeria*, eta beste euroen antzeko, iruntsi-eziñezko, eta alan da guzti-be, egunero entzun oi-ditugun itz asko, eztoгу uste iñok ontzat artu bear diran eretxirik izan leyenik.

Bardin diñogu erderatiko itz bikoitzai buruz be : *sakakortxoá, luz-eletrika, kafekoletxe* eta antzekoak, ezdaitekez inoiz euskal-iztegiratu, eñiak aldatu-aldatu-egin-da, edo itz bikoitzaren zafiak, banan be, ontzat emongaña izan ezik.

Eta atal au amaitzeko, Euskal-eñiak oneetariko itz mordoloak darabiltzan ezkerro, ezteiguzan guk, oñtera, *lima, limatzañle, pelota, pelota-zain, sardiña, sardiñadun* eta onako beste erderatiko eta erdel-zatidun itz asko loyegitzat bazartu; bestela, Euskaltzaindi onen euskerea eta Euskaleñiarena, egiñalak eginda be gaitz izan daite egundo batetara ekarten.

II. ATALA

ITZ-BAÍJAK

Ontzat artzeko, ondo eraldu edo egiñikoak izan bear dabe oro.

Euroetatik lenengo artu bear ditugunak oneexek dira :

A) Euskaldun geyenentzat esan-gura edo ikurpen argi eta ulertze-efeza dabeenak : betaufeko (anteojos), oñestoätz (pararrayos), bidekatu (descarrilar, desviar), elizain (sacristán), gaizkatu (salvar), gizamailla (jerarquia), goiargi (inspiración) eta abar.

B) Euskaldun artean naikotxu zabaldu diranak : batzoki, aberi, bazkide, auteskunde, idatzi, idazki eta abar.

C) Erabardiñez edo antzekoz eraldunikoak : berbarako, *izli* « tratado » tzat bein artu ezkerro, itz ori zati dala eraldutakoak izan bear dabe ikurpen ori daroen itz oro.

Bardin, izkidun itzai buruz be : beraz, izki (afijo) bat bañu dala itz bañirik eraldu baño len, izki ofen ikurpen edo zentzuna zein izango dan garbi azaldu bear da. (Bide au iztegiari jagokozan gauza orotan jañaitu bear dogu alegiñez. Itz bat zein eratan sortu edo zein pilotatik artu dogun, ba bardin beste bere antz edo senidetasuna nunbaitetik daben oro be. Onegaitik, itz bat eraldu orduko, begiratu bere antzekoak zelan eralduta edo eraltzeko diran.)

III. ATALA

AINTXIÑA-ITZAK

Aintxiña-itzak, guztiz il ziran euskal-itez gañera eñi koskoñen baten il-agiñian bizi-diran oro artu daikeguz.

Eurok bizi dirana edo iñoiz bizi izan dirana, iñok ganoraz ukatu eziñezko argitasunez bayeztu bear da; au lenengo eta bigafen, aintxiña-itzok aintzat artzeko euskal-jatofi garbikoak izan bear dabe.

Aintxiña-itzok be, itz-bañien antzera, lenengo ontzat emon bear ditugunak oneexek dira :

A) Ikurpen edo zentzun ulertze-erēza dabeenak : eregi (levantar, edificar), asaba (ascendiente, antepasado).

B) Bizitza zaafez, edo berbiztu diralako, edatuxe diranak : txiro (pobre), eraile (asesino, matador).

IV. ATALA

ERDERATIKO-ITZAK, ITZ-BAÑIAK, AINTXIÑA-ITZAK ETA
BESTE ITZ ORO

Ontzat emon ditugun itzoi, beste jatofi garbiko izanik asko ezagutuak diranak gañeratu ezkeru, batzuetan, bat baño geyago al-dira gauza edo ikurpen batentzat; beste batzuetan, orotara jota be, eztoгу bat be aurkituko. Utsunek eta lafegiunek arteztzeko ona litzake ufengo lege oni, andiz-andi jaraitzea; ez itzez itz, ezin leike-ta.

Gauza efikoiak izentetako, itz edatu edo ezagutuenera jo bear dogu alegiñez. Gauza andikoi edo jakitunen artean safiago ibili oi-diranak izentetako, edatasunori baño zeatztasuna goratxoago imini lei.

Ona emen, orain, gertakun edo jasokunik gogoragafienak.

A) *Gauza bat izentelako, itz bat baño ez izatea.*

Au bitara gertau leite :

I. Euskaldun orok itz ori bardin oguztu edo esatea : Ama, Gizon, Seme, Luma eta abar. Sorionezko gertakun oneri buruz eztago zer-esanik.

II. Sustraiz itz bardiña dala, euskaldun batzuk era batera ta beste batzuk bestera ogutzi edo esatea : Andere, andre ta andra; Uri eta iri; Pelota ta pilota. Au jaso oidanean, egoki izan ezkeru, itz-antzekoak, ikurpen edo

zentzun-antzeko (sinónimos) gauzeetan banantzea litzake onena; eta ori egoki ez-tanean autu bat, edatuena edo zeatzena, gorago, edatasunari eta zeatztasunari buruz imini dogun legea al-bada sainduz.

B) *Gauza bat izentetako, itz bat baño geiago izatea.*

Ona emen batzuk : Etofi eta Jin; Itandu eta Galdetu; Jaso eta Gertatu; Gutun, Liburu eta Idazti edo Izti.

Onakoetan banandu egin bear dabe itzok, ikurpen edo zentzun antzekodunen artean; onela, berbarako :

I. Liburu (itzik edatuena, ezagunena) erderazko « Libro » izentetako; herau da iru itz-antzekoetatik edatuena eta efikoiena-ta.

II. Gutun (itz garbia eta edatuxe be bizi dana baño ez liburu aña) « Boletin » edo antzekoetarako egokia da.

III. Idazti edo Izti (itz bañi zerbait zabaldu diranak) « Tratado » edo onen antzeko jakitun usaiñezko gauzeentzat egoki egokiak.

C) *Gauza batentzat ezetariko euskal-itzik ez.*

Au jaso oi-danean, itz bañija eraldu bear da; eta onetarako be, begiratu goragoko edatasun eta zeatztasunari buruzko lege oñi.

Gauza efikoa bada, eñi lauak sañi aitatu bear dabena, eraldu daigun itz argi eta bein entzunda eñez-eñez aitu eta ikastekoa.

Andikoa bada, jakitunentzakoa, orduan itza ondo eta garbi eraltzeari begiratu giñeijo, aitukoi edo ulerkoi izatearen gaiñetik; baño au be lañegikeri barik.

Amaitzeko.

Arazo au, eztot uste, dakardan lantxu onegaz, guztitudanik; ona litzake beraz, gai oni buruz, bear diran

erabagiak artu baño lenago, oin-arauok euskaltzain bako-
txak artu aztiro-aztiro eta bere eretxizko artezketa
geitze edo gitxitzeak euroi egitea.

ALTUBE, *euskaltzaina*.

S X

ERDERATIKO ITZAK, ITZ SORBERIAK ETA BEINOLAKO ITZAK

(BATZAR BERTAN AZKUE YAUNAK EGINDAKO IKERPENA)

Gure lankide, izatez asbefi, irudiz as-zañ onek beronen
lan politari, *amaitzeko* guri zuzendu dizkigun lefoetan,
izen egoki bat ezañi dio : oin-arauak (erderazko *bases-i*
dagokion itz goxoa).

Nik nere lantxo oni ¿ zein eman otenezakikeo ? gure
basefitañak oinetakoen txaplatak adierazteko gutxienez bi
itz erabili darabilzkite : *zopita* Bizkayeraz ; Gipuzkeraz
zazarki naiz *zazarkin*. Itz auetatik bat zein bestea aotan
artuko banu, Altuberen ikerpema abarka zar baten ide
dala erakutsiko nuke, zazarkin-zopitak abarka-txaplatak
baitira ; nik, ordea, gure lankidearen etekin au lan eder,
mamintsu, zinezko oin-arau esten det. *Geigari* izan nere
zertxo onen izena ta bañena sar gakiozan.

De Sintaxis euskérica izenez orain urte bete argitaratu
zuan gutuntxoan erderatiko itzak irutarikoak dirala ira-
katsi zigun : 1° euskerazkotzean aldakuntzetxoren bat
izan duenak : *luma, landara...* ; 2° oso-osorik gure ezpai-
netan bizi diranak : *pelota, torre* ta beste batzuk ; 3° beste
edozein izkeratan mintzo oi diran *politica, academia, mú-
sica, orquesta, zepelin, hotel, cafe*. Eta iru mordo auetako